

## Bideo bide bat bibliotekatik

Pablo AZPIROZ IRIBAS\*

### 4.8.4 Content creation

*The service should become a content creator and a preserver of local community resources. Content creation includes publication of information booklets and the development of web content by providing access to information about the library or held by the library in printed formats.*

*The Public Library Service: the IFLA/UNESCO Guidelines for Development*



# 29

ikus-entzunezko kulturari bizi gairela aspaldi esaten ari zaizkigu jendarteko gurek. Itsumustuan sinetsi egiten diegu eta ideia errepikatzen dugu guk asmatua balitz bezala. Azkenean, ideia erabat errotuta, gure hausnarketa lan esparrura eramaten dugu eta bertan nola edo hala gauzatu behar dugula sentitzen dugu. Lan nekosoan, kontuan hartuta paradigma berriak bata bestearen atzetik datozkigula —ikus-entzunezkoena horietako beste bat baino ez da—. Azken finean, betidanik informazioa baliatu dugu gure erabakiei indarra eman nahian, eta paradigmak paradigma, egin behar duguna da aprobeztatzea euskarri guztiek eskaintzen digutena; jakina, ukatu gabe batzuek gaitasun handiagoak dituztela beste batzuek baino. Nolanahi ere, gakoa beti egongo da aukeratzean helburuari ongien egokitzen zaion euskarria —edukia barne, nola ez—.

\* Sanduzelaiko Biblioteka Publikoa

Gauzak honela, aspaldiko kontua da biblioteketako funtsetan bideoak ere badirela. Zenbait tokitan lehenago, zenbait tokitan beranduago, gaur egun ezin dugu imajinatu biblioteka bat maileguan eramateko bideorik eskaintzen ez duena —bestelako arazoa da gutxi barrurako espero dezakegun “paradigma berria”, hau da, euskarri fisikorik ezean nolatan moldatuko garen bideoak eskaintzen segitzeko—. Hala ere, hemen bideoen beste alderdi bati erreparatuko diogu: bibliotekak berak ekoizten dituenenari, alegia.

Ez dira gutxi azken urteotan beraien buruzko bideoak dauzkaten bibliotekak —urrutira joan gabe eta guk dakigula, lokal berrien harira Barañaingo Bibliotekak bideo eder bat publikatu zuen—. Denetarik aurki dezakegu bideo hauen artean: sustapen-bideoak (bibliotekenak, atalenak, zerbitzuenak...), bisita birtualak, dokumentuen bideo-gomendioak, inaugurazioenak, liburutegien aldeko kanpainenak, bertan izandako ekitaldienak, edota flasmobak ere bai. Bideo hauekin bi multzo osatzen ahal ditugu: batetik, ikus-entzunezkoen sektoreko profesionalei kontratatutako lanak —oro har landuagoak, ikusgarriagoak eta abar—; eta bestetik, biblioteketako langileek beraiek egindakoak —askotan boluntarismo eta ausardi gehiegi erakusten dutenak—. Azken multzo honetan gaude gu.


Izan ere, kontsumo-jendarteak beste kontzeptu berri bat ahalbidetu digu: prosumer-ena. Ingelesetik eratorritako akronimo honek bi hitz batu zituen: professional (profesionala) eta consumer (kontsumitzailea), eta honek gutxi goiti-beheiti esan nahi du kontsumo-sektoreari zuzendutako produktuek oso ezaugarri eta kalitate onak eskaintzen dituztela. Hain da horrela, non batzuetan profesionalek ere etxe-ekipoak erabiltzen dituzten. Hau dela medio, eta gure kasuari etorrira, asko erraztu da maila onesgarriko bideoen ekoizpena. Hortaz, argazki kamera xume, eskaner, ordenagailu eta programa gutxi-rekin aski dugu zer edo zer egiten saiatzeko.

## 30

Gure kasuan, aspaldidanik ari ginen pentsatzen bideo baten bat egitea baina ez genekien nola edo zertaz egin. Beraz, baten batek pentsa lezake gure bideoekiko grina nahikeria hutsa baizik ez zela eta, aditu guztiei jarraiki, gaizki ari ginela; izan ere, beti esan baitigute lehenbizi edukiaren beharrari erreparatu behar zaiola eta gero erabaki zein euskarri egokituko zaion hobeki gure helburuari. Bada, arrazoi osoa izango luke honela dioenak. Halaz ere, tematuta geunden —nengoen— eta Pettik bibliotekan kontzertua eskaini behar zuenean agertu zen aukera ederra. Hiru bideotxo grabatu genizkion argazki kamerarekin —bakoitzak kantu bati zegokiona—, eta nahiko petralak ziren arren, haietako bi igo genituen YouTubera bere horretan, inongo moldaketarik gabe. Nahiz eta emaitza erdipurdikoa izan, gure web gunean txertatu genituen eta, batez ere batek, bisita “dezente” izan zuten denbora gutxian.

Horrek bi ondorio izan zituen guregan: batetik, ustekabe ona beste gauza “xelebre” batzuk eginak genituelako lehendik eta ez zituen inortxok ere begiratzen; eta bestetik, ohartu ginen gauzak egitekotan, hobeki egin behar direla, zeren bestela irudi kaxkar xamarra uzten ahal duzun eta onerako baino kalterako suertatzen ahal zaizun egindako lana.

Honela ba, eta beti dioxozko nahikeriak bultzaturik, erabaki genuen onena izango zela bideoa editatzeko programaren batean trebatzea. Pixka bat ikertu ondoren, Pinnacle aukeratu genuen. Badakigu beste batzuk askoz hobekak direla baina, une hartan eta gure asmoetarako,



“ikaste-kurba” lorgarriena iruditu zitzaigun. Hilabete baten bueltan zerbaitekin hasteko gai sumatzen genuen gure burua eta, hain zuzen ere, huraxe izan zen edukiaz pentsatzen hasteko tenorea. Zeri ekingo genion? Bisita birtual bati? Liburu bideo-gomendio bati? Erantzuna nola ez: benchmarking! Interneten aukeratu genuen hainbat “jardunbide egoki”. Dudarik gabe, New York Public Libraryk egindako zenbait bideo ziren guk egin nahi genituenak. Bai horixe! Berehala ikasi genuen ez zela hain erraza eta urrutiko gelditzen zitzaizkigula hain lan ederrak egitea —zerbaitengatik egongo dira profesionalak munduan, ezta?—.

31

Ba, lurrera etorrita eta egitasmoa ia bertan behera utzi ondoren, aspaldiko kontu bat bueltatu zen gure gogora: zeinen gauza gutxi dagoen argitaratua Sanduzelaiz! Auzoko eskoletako “lagunak” bertako informazio eskean etortzen diren aldiro, beti ataka berean ikusten dugu gure burua: Arazuri zenaren liburuak eta deus gutxi gehiago. Zergatik ez genuen egingo ba zerbait horren gainean? Ongi. Eta gaiari nola heldu?

Luze pentsatu eta gero, erabaki genuen hasteko onena izango zela auzoko historiaren inguruko zerbait egitea. Zorionez, 2008an Umetxeako lagunek lan bikain bat argitaratu zuten: “La historia escondida: la historia de los movimientos sociales en San Jorge-Sanduzelai”. Historia komunitariozko 2. tailerraren ondorioz, liburu ederra atondu zuten, eta bertan atal txiki bat zegokion auzo gazte honen historiari. Beraz, harri batez bi kolpe egin genituen. Alde batetik, burutik bururaino genuen egina bideoaren eskema deus ikertu gabe eta ,gainera, konfiantza osoarekin -testu horren gainean sartuko genituzke irudiak eta soinuak, eta berak emango ligu-ke “tempoa”-; beste alde batetik, bibliotekako dokumentu bat ezagutarazteko aukera ematen zigun.

Honela, guztia erraztu zitzaigun. Testuak berak eskatzen ziguna bibliotekako dokumentuetan bilatzen genuen eta bideoan txertatu. Irudiekin, bi prozedura erabili genituen: ahal bazen, esze-

na aproposak bideoetan bilatu, bertatik kapturatu eta esaldien luzerei egokitu; bestela, liburuetako irudi egokiak aukeratu, eskanerretik pasatu, GIMP software libreko programarekin tratatu eta txertatu —kasu bakanetan SITNAREN web gunetik eta tokiko egunkari baten hemeroteca digitaletik ere hartu genuen irudi bat edo beste—. Soinuarekin aldiz, bereizi beharko genituzke hondomusika, girotzeko soinuak eta narratzailearen ahotsa. Lehenengoari dagokionean, besterik gabe bibliotekako musika saileko tema bat aukeratu genuen —horrek jarraitutasuna ematen dio kontakizunari—. Girotzeko soinuak, berriz, Internetik kapturatu genituen eta hala eskatzen zuenean, txertatu. Azkenik, narraziorako, testua irakurri genuen mikrofono baten aurrean eta gero soinua tratatzeko programa baten filtro egoki bat pasatu genion guztiari.

Modu honetaz, zerbait “txukuna” eta praktikoa egiten saiatzeaz gain, bibliotekako beste dokumentu batzuei bisibilitate pixka bat eman nahi genien. Hori egite aldera, kredituetan aipatu genituen erabilitako dokumentuak. Honela, irudiren bat edo gustatuz gero, errazten ahal genuen bibliotekako dokumentuaren erabilera. Gainera, gure ustez era honetaz egileen esku-bideak ere errespetatzen ditugu; izan ere, irabazi-asmorik gabeko lana baita, helburu dibulgatzaile eta akademikoak baititu, eta momentu oro erabilitako dokumentuen aipamenak egiten ditugu. Beraz, uste dugu, biblioteka garen aldetik, betetzen dugula jabetza intelektualari buruzko araudia.

## 32

Behin bideoa eginda, gure YouTubeko kanalera igo genuen eta ez genion kasik propagandarik egin; izan ere, gure Facebookeko eta Twitterreko kontu tristeetan baizik ez genuen aipatu —gure-gurezko nerabe lotsak eraginda, ziur aski—. Alabaina, denbora gutxian guk uste baino bisita gehiago izan zuen bideotxoak —hau esanik ez dezala inork pentsa sekulako arrakasta lortu zuenik ere—, eta horrek harritu gintuen hasiera batean. Handik egun batzuetara ulertu egin genuen nondik zetozen bisita gehienak: laneko materialen bila ari zelarrik, San Jorge Eskolako maisu batek txiripaz topatu zuen eta ikusitakoa klasean kontatu bide zien ikasleei. Hortaz, badirudi auzoko eskola komunitatearendako baliabidea izan litekeela —halaber, auzokide larri zenbaitek ere esan izan digute ikusi dutela eta ilusioa egin diela—.

Bukatzeko, beraz, esaten ahal dugu planifikaziorik gabe sortutako egitasmo honek, azkenean, amaiera ona izan duela —jakina, iruzkin hau ere oso subjektiboa da alde zurretiko ebaluazio sistematik ez baitakar berarekin—. Nolanahi ere, gure ustez honakoak izango lirateke egitasmoaren alderdirik positiboak:

—Bibliotekari ematen ahal dion bisibilitatea eta irudia.

—Bibliotekako hainbat dokumentu eta baliabideren hedatzea.

—Liburutegi publikoen zerbitzuaren garapenerako IFLA/UNESCOREN jarraibideek dioten aldetik, bete-betean aritu gara 1.7 artikuluan (tokiko beharrak), 1.8an (tokiko kultura) eta, gehien bat, 4.8.4 artikuluan (edukien sorkuntza) Azken honi buruz, gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da erronka profesional berrien artean edukien sortzearena.

—Auzoko zenbait eragileren aurrean lortutako irudi “profesionala”.

—Etorkizunean beste lan batzuk egiteko eman digun bultzada.

Aitzitik, alderdi negatiboetan hurrengoak aipatuko genituzke:

—Planifikaziorik egin ez izana (beti pausoak neurtuagoak eta sendagoak dira eta ebaluazioak ahalbidetzen du egitasmoaren hutsak bideratzea)

—Programa informatikorik ez izatea eta ezin instalatzea laneko ordenagailuetan (beraz, lanaren parte handi bat etxean eta gure kontura egin izan da)

—Maiz etsigarria suertatzen da alderatzea buruan daukazuna eta egiten lortzen duzuna (hobe da beti gaitasun mugak kontuan hartzea eta gauza xume baina lorgarriak egitea)

Hau guztia kontuan hartuta, espero dezagun irekitako ildoak hobeki jorratzea. Dagoeneko ari gara lanean bideo berri batean —auzoko kondaira baten gainekoa—, eta etorkizunean nahiko genuke gauzatxo gehiago egin. Ea inor gehiago animatzen den eta zerbait egiten dugun elkarlanean.

